



## AKTA: TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA ERATZEA

**NOIZ:** 2019ko urriaren 24an, 18:20tan

**NON:** Tolosako Udaletxeko Pleno Aretoan

**BERTARATUAK:**

UDALA	ORDEZKARIA	BIZTANLEAK	BOTO %
Aduna	Josu Amilibia Alsua	469	0,76%
Alegia	Maria Aranzazu Irazusta Etxeberria	1726	2,78%
Alkiza	Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez	374	0,60%
Altzo	Josu Astrain Azkona	427	0,69%
Amezketza	Iñaki Amundarain Tolosa	939	1,51%
Andoain	Maidier Lainez Lazcoz	14618	23,58%
Anoeta	Pedro María Estanga Lasa	2034	3,28%
Asteasu	Aitor Usandizaga Izagirre	1533	2,47%
Baliarrain	Andoni Olano Manzano	137	0,22%
Berastegi	Amaia Azkue Eizagirre	1081	1,74%
Berrobi	David de Miguel Les	602	0,97%
Gaztelu	Eduarne Garcia Azurmendi	153	0,25%
Hernialde	Aitor Zubillaga Celaya (*)	313	0,50%
Ibarra	Nagore Zubillaga (*)	4172	6,73%
Ikaztegieta	Bakarne Otegi Jauregi	488	0,79%
Irura	Gorka Murua Macuso	1862	3,00%
Larraul	Aitor Biestegui Fiallegas	253	0,41%
Leaburu-Txarama	Arkaitz Esnaola Huici	377	0,61%
Lizartza	Iñaki Azpiroz Beldarrain	602	0,97%
Orendain	Eneritz Olano Iriarte	218	0,35%
Orexa	Gurutze Etxezabal Iturrioz (*)	123	0,20%
Tolosa	Olatz Peon Ormazabal	19525	31,50%
Villabona	Beatriz Unzue Esnaola	5.881	9,49%
Zizurkil	Jose Maria Luengo Zapiirain	2.976	4,80%
<b>24 UDALERRI-ORDEZKARI</b>		<b>60.883</b>	<b>98,20%</b>

(\*): Luis Arana Goya ordezkariaren ordezkapena Aitor Zubillaga Celaya zinegotziari eskuordetzen dionaren agiria aurkeztu du.

(\*): Igor Zapirain ordezkariaren ordezkapena Nagore Zubillaga zinegotziari eskuordetzen dionaren agiria aurkeztu du.

(\*): Garikoitz Balerdi Atxega ordezkariaren ordezkapena Gurutze Etxezabal Iturrioz zinegotziari eskuordetzen dionaren agiria aurkeztu du.

Idazkaria: Leire Arteaga Zumeta.

Ingurumen Teknikaria: Gemma Eceiza Mendiguren.

### **BERTARATU EZ DIRENAK:**

<b>UDALA</b>	<b>ORDEZKARIA</b>	<b>BIZTANLEAK</b>	<b>BOTO %</b>
ABALTZISKETA	JON ZUBIZARRETA ALDAIA	320	0,52%
ALBIZTUR	IÑAKI ORBEGOZO ARROSPIDE	309	0,50%
BELAUNTZA	SILVIA MONEO CID	239	0,39%
ELDUAIN	OIHANA AMUNDARAIN ZUBILLAGA	239	0,39%
<b>3 UDALERRI-ORDEZKARI</b>		<b>1.107</b>	<b>1,80%</b>

Mankomunitatearen idazkari den Leire Arteaga Zumetak eman dio fede aktari.

Estatutoen 20.2 atalean xedatzen den Mankomunitateko zuzenbidezko biztanleen gehiengo absolutuaren ordezkari izango den botoen gehiengo absolutuak bertan daudenez, Batzarrak lehenengo deialdian baliozko eraketa du. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

### **GAI ZERRENDA**

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

1. **Mankomunitateko diruzaintza izakinen egoeraren berri ematea.**
2. **Mankomunitateko Batzarraren osaketa:**
  - **Adin Mahaiaren eraketa.**
  - **Egiaztagirien konprobaketa.**
  - **Batzarraren eraketa.**
3. **Lehendakariaren hautaketa.**
4. **Lehendakariordearen hautaketa.**
5. **Batzorde Iraunkorra Kontuetaarako Batzorde Berezi gisa izendatzea eta bere osaketa burutzea.**
6. **Mankomunitateko deialdiak eta jakinarazpenak posta elektronikoz bidaltzeko proposamena.**

### **1. Mankomunitateko diruzaintza izakinen egoeraren berri ematea.**

Mankomunitateko teknikariak hitza hartu du esplikatzeko zein egoeratan dagoen diruzaintza izakina, 2019ko irailaren 30 arte:

2019/01/01 hasierako saldoa: 1.561.866,28 €

2019/09/30 bukaerako saldoa: 1.708.378,25 €

Batzarkideei pasa zaien dokumentazioan egiaztatzen da kontabilizatutako arkeoa eta Kutzako saldoa bat datozela.

### **2. Mankomunitateko Batzarraren osaketa.**

Mankomunitateko estatutuen 21. atalak dioenari jarraiturik, Udaletako ordezkariak, Mankomunitateko Idazkariak deia egin ondoren, lehen buruan, adin Mahaia eratu dute, bertaratuen arteko adin handienekoak eta adin txikienekoak osaturikoa; lehena, Alkizako ordezkaria, Mankomunitateko lehendakari gisa eta, bigarrena, Orexako ordezkari ordezkaria, Idazkari gisa aritu delarik Mankomunitatekoa. Mahaiak hautetsien egiaztariak egiaztatu ditu.

Mankomunitateko ordezkarien gehiengo osoa osoko bilkuran dagoela, adineko mahaiak Mankomunitatearen batzarra eratutzat jo du.

### **3. eta 4. Lehendakariaren eta Lehendakariordearen hautaketa.**

Mankomunitateko estatutuen 21.2 atalak dioenari jarraiturik, Mankomunitateko Lehendakariaren eta Lehendakariordearen hautespenari ekin zaio.

*“Lehen botazioan emandako botoen gehiengo osoa lortuko duen hautagaia Lehendakari hautatua izango da. Gehiengo hori ezein hautagaik lortu ez izatera, beste botazio bat egingo litzateke ondoren eta emandako botoen gehiengo soila lortuko lukeen hautagaia Lehendakari hautatua aldarrikatuko lukete. Lehendakariordea hautatzeko berdin jardungo dute”.*

Adunako ordezkariak hitza hartu du hautagai hauek proposatzeko dituzte: Lehendakaria, Tolosako ordezkaria eta Lehendakariordea, Orexako ordezkaria.

Ondoren, bozketari ekin zaio eta bere emaitza honakoa izan da: batzarkide guztiak hautagai hauen alde egin dute, eta ez da egon kontrako botorik ezta abstentziorik ere.

Beraz, Batzarrak, ahobatez,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Tolosako udaleko ordezkaria den OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosaldeko Mankomunitateko Lehendakaria izendatzea.

**BIGARRENA.-** Orexako ordezkaria den GURUTZE ETXEZABAL ITURRIOZ Tolosaldeko Mankomunitateko Lehendakariordea izendatzea.

**5. Batzorde Iraunkorra Kontuetarako Batzorde Berezi gisa izendatzea eta bere osaketa burutzea.**

Batzorde Iraunkorraren osaketa, Mankomunitateko estatutuen 24 eta 25 atalek dioenari jarraiturik, Batzarrak aukeratuko du. Batzorde honen funtzioen artean, Kontuetarako Batzorde berezi gisa aritzea izango da ere.

- Batzarreko kideen artean hautaturiko zazpi baino gehiagoko eta hamaika baino gutxiagoko kide kopuruak osatuko du Batzorde Iraunkorra.

- Lehendakaria eta Lehendakariordea, beti ere, haietarik izango dira eta Batzordean halakotzat jardungo dute.

-Batzorde Iraunkorrekoan izango dira, gutxienez, ondoko udal taldeetako ordezkari bana:

- a) 500 biztanle arteko herriak
- b) 500-2.000 biztanle arteko herriak.
- c) 2.000 biztanletik gorako herriak.

Batzorde Iraunkorra osatzeko adostasuna dagoenez alderdi politikoen artean, Batzarrak, ahobatez, ondorengo Batzorde Iraunkorraren osaketa onartu du: **Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Andoain, Asteasu, Berastegi, Ikaztegieta, Larraul, Orexa eta Tolosa.**

**6. Mankomunitateko deialdiak eta jakinarazpenak posta elektronikoz bidaltzeko proposamena.**

Teknikariak hitza hartu du adierazteko, Batzar berria eratzeko deialdiarekin batera, bidali dela dokumentu bat deialdiak eta jakinarazpenak posta elektronikoz jaso ahal izateko baimena emateko. Beraz, batzarkide bakoitzak bere udaleko helbide elektronikoa eta pertsonalarekin bete dezake eta, ondorioz, Mankomunitateko deialdiak eta jakinarazpenak adierazitako helbideetan jasoko ditu.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko seiak eta berrogeitahamabost direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

**LEHENDAKARIA**

**IDAZKARIA**